# 9 PROPOSATUTAKO JARDUNEN BALORAZIOA ETA PROGRAMAZIOA

## 9.1 Programen definizioa

Errepide-sarearen analisia eta diagnostikoa kontuan hartuta, eta finkatutako adierazleen eta lurralde historikoen arabera esku hartzeko irizpideak aintzat hartuta, definitu dira jardun-programak eta dagozkien azpiprogramak. Jardun-programa eta -azpiprograma horiek lurralde historikoen arabera aurkezten dira eta errepideen arabera antolatuta daude. Jardunak zer helburu teknikoetara egokitu behar duen adierazten da, baita Plana idazteko unean jardunak duen definizio-maila, jardunaren kostua eta Planaren indarraldian jardunak duen lehentasuna ere.

Jardun bakoitzaren kostuari dagokionez, obra zibilaren balorazioaz gain, alderdi hauei buruzko honako aurreikuspen ekonomiko hauek ere hartu dira kontuan:

- Azterketen eta proiektuen idazketa.
- Eraginpean dauden ondasunak eta eskubideak eskuratzearen kostua.
- Eraginpean dauden zerbitzuak birjartzearen kostua.
- Ingurumen-ebaluazioaren ondoriozko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

Aurkezpenaren ondorioetarako, jardun-proposamenak honako jardun-programa eta -azpiprograma hauetan, gutxienez, sailkatuko dira:

- Obra nagusiko programa
  - ✓ Azpiegitura berriak
  - ✓ Galtzada bikoiztea
  - ✓ Ahalmena handitzea
  - ✓ Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea
  - ✓ Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea
- Sarea egokitzeko eta hobetzeko programa
  - ✓ Egokitzapena
  - ✓ Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea
  - ✓ Bidegurutzeak berrantolatzea eta sarbideak kontrolatzea
  - ✓ Zeharbideak hobetzea
  - ✓ Zirkulazio motelerako bideak eraikitzea
- Hiri-saihesbideen programa

Ondoren, Planaren mende dagoen sarerako proposatutako jardunen laburpen-taulak gehitu dira:

LURRALDE HISTORIKOA: ARABA

| Errepidea | Jarduna | Luzera (km) | HELBURU TEKNIKOAK | | INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Proiektuaren abiadura (km/h) | Zeharkako sekzioa (m) | Programan duen lehentasuna | Definizio-maila | Aurrekontu eguneratua (milioi €) |
| PROGRAMA: OBRA NAGUSIA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK | | | | | | | |
| A-132 | N-104 ERREPIDEAREKIKO KONEXIOA ARKAUTIN | 2,1 | 80 | 7/10 | 2023-2025 | AZTERTZEN | 4,76 |
| AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA | | | | | | | |
| N-124 | ARMIÑON - ZAMBRANA SAIHESBIDEAREN AMAIERAKO TARTEA BIKOIZTEA | 6,4 | 100 | 2x7/10,5 | 2017-2019 | ERAIKUNTZA PROIEKTU ONARTUA (25,50 ETA 31,90 KILOMETRO PUNTUEN ARTEAN) GAUZATZEN 28,00 ETA 31,00 KILOMETRO PUNTUEN ARTEAN | 30,70 |
| N-124 | ZAMBRANAKO BIKOIZKETA. SAIHESBIDEAREN AMAIERAREN ETA A-4106ko BIDEGURUTZEAREN ARTEAN (GATZAGA BURADON) | 3,4 | 100 | 2x7/10,5 | 2020-2022 | TRAZADURA PROIEKTUA ONARTUA | 15,64 |
| N-124 | GATZAGA BURADON - BRIÑAS ARTEAN GALTZADA BIKOIZTEA | 3,27 | 80 | 2x7/10,5 | 2026-2028 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 9,98 |
| A-625 | LAUDIO - AMURRIO TARTEA BIKOIZTEA | 8,63 | | 2x7/10,5 | 2020-2022 | TRAZADURA PROIEKTUA LUIAONDOKO SAIHESBIDEAREN HASIERA ETA AMURRIO ARTEAN | 20,00 |
| AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA | | | | | | | |
| N-104 | A-2134 BIDEGURUTZEA - A-3110 BIDEGURUTZEA | 2,04 | 100-120 | 2x7/10,5 | 2023-2025 | INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA | 11,67 |
| N-240 | AHALMENA HANDITZEA A-623 ERREPIDERA ARTE (LEGUTIO) | 2,33 | 100 | 2x7/10,5 | 2023-2025 | AZTERTZEN | 10,59 |
| AZPIPROGRAMA: SARBIDEAK BERRANTOLATZEA ETA KONTROLATZEA | | | | | | | |
| N-104 | A-3110 BIDEGURUTZEA - A-1 BIDEGURUTZEA (VENTA DEL PATIO) | 5,11 | 100 | 7/11 | 2026-2028 | INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA | 9,14 |
| N-622 | IHURREKO LOTURATIK ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURARA BITARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA | 2,99 | 120 | 2x7/10,5 | 2017-2019 | AZTERTZEN | 2,14 |
| N-622 | ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURA ETA A-3600ko BIDEGURUTZEA (LETONAKO LOTURA) ARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA | 4,84 | 120 | 2x7/10,5 | 2017-2019 | ZATI BATEAN GAUZATUA (A-3608ko bidegurutzera. arte, Apodakako lotura) | 1,38 |
| N-622 | A-624 eta A-2521 KONEXIOKO ZERBITZU BIDEA | 1,5 | 60 | | 2020-2022 | AZTERTZEN | 0,43 |
| A-124 | TRAZADURAKO SAIHESBIDEAREN HASIERA - AMAIERA (PAGOS DE LEZA) | 0,40 | | 7/10 | 2020-2022 | AZTERTZEN | (*) |

| Errepidea | Jarduna | Luzera (km) | HELBURU TEKNIKOAK | INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA | Errepidea | Jarduna | Luzera (km) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA | | | | | | | |
| A-1 | A-1 ETA A-2134 ERREPIDEAREN ARTEKO LOTUNE OSOA | | | | 2023-2025 | AZTERTZEN | 1,19 |
| N-240 | A-623 ERREPIDEKO LOTURA (LEGUTIO) | | | | 2023-2025 | INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA | 3,58 |
| N-622 | IHURREKO LOTURA ETA N-622 ETA ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURAREN ARTEKO ERDIKO TARTEA BIRMOLDATZEA | 2,99 | | 2x7/10,5 | 2023-2025 | AZTERTZEN | 19,64 |
| A-124 eta A-3226 | A-3226 ERREPIDEKO LOTURA ETA SARBIDEEN KONTROLA ERRIOXAKO MUGARA ARTE | | | | 2023-2025 | AZTERTZEN | 3,22 |
| A-624 | A-3618 ETA A-3620 ARTEKO ELKARGUNEA (Zumarren elkargunea) LOTURA BIHURTZEA | | | | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 4,29 |
| A-1/AP-1 | AP-1 AUTOBIDEKO ARMIÑONGO LOTURAKO BIDE ADARRAREN ETA A-1 MADRIL - IRUN ERREPIDEAREN ARTEKO LOTURA HOBETZEA | 1,9 | | 2x11,25/14,75 | 2023-2025 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 1,61 |
| A-1/AP-1 | AP-1 AUTOBIDEAREN SARBIDEAREN (ARMIÑONGO LOTURA) ETA A-1 MADRIL - IRUN ERREPIDEAREN ARTEKO BIDEBANATZEA HOBETZEA | 1,9 | | 2x11,25/14,75 | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 2,86 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROGRAMA: EGOKITZAPENA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENA | | | | | | | |
| N-240 | LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (Legutio - Ollerieta tartea) | 3,06 | 100 | 7/12 | 2017-2019 | GAUZATZEN | 9,28 |
| N-240 | LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (Ollerieta-Bizkaiko muga tartea) | 3,1 | 100 | 7/12 | 2020-2022 | AZTERTZEN | 3,24 |
| A-124 | ERRIOXAKO MUGA - EGOKITZAPENAREN HASIERA TARTEA EGOKITZEA, 54,31 ETA 55,65 KILOMETRO PUNTUEN ARTEAN | 1,34 | 80 | 7/10 | 2020-2022 | AZTERTZEN | 0,75 |
| A-124 | EGOKITZAPENAREN AMAIERA - TRAZADURAREN SAIHESBIDEAREN HASIERA EGOKITZEA (57,00 - 59,54 KP ARTEAN) | 2,54 | 80 | 7/10 | 2020-2022 | AZTERTZEN | 4,42 |
| A-132 | A-132 ERREPIDEAN, ELORRIAGA ETA EGILETA ARTEKO TARTEAREN TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA: A-4120 BIDEGURUTZEA - EGILETA TARTEA | 3,63 | 80 | 7/12 | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDAZTEN | 2,53 |
| A-623 | LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (GOMILAZ) | 6,04 | 60 | 7/9 | 2023-2025 | AZTERTZEN | 4,90 |
| A-624 | ALTUBE - ZIORRAGA TARTEA EGOKITZEA | 8,59 | 60 | 7/9 | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDATZIA | 8,66 |
| A-624 | AMURRIO - ARESPALDITZA TARTEA EGOKITZEA (tartearen gainerakoa) | 3,78 | 60 | 7/9 | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 3,16 |
| A-624 | ARTZINIEGA - BURGOSKO MUGA TARTEA EGOKITZEA | 3,87 | 60 | 7/8 | 2026-2028 | AZTERTZEN | 2,69 |
| A-625 | BIZKAIKO MUGA ETA SARATXO ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA | 3,08 | 80 | 7/10 | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA ONARTUA | 19,69 |
| A-625 | SARATXO ETA AMURRIOKO EKIALDEKO SAIHESBIDEAREN ARTEKO (A-624 errepideko LOTURA) TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA | 1,01 | 80 | 7/11 | 2020-2022 | TRAZADURA PROIEKTUA ONARTUA | 7,60 |
| A-627 | A-3006 ERREPIDEAREN ETA A-3002 ERREPIDEKO BIDEGURUTZEAREN ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA | 2,2 | 80 | 7/10 | 2023-2025 | AZTERTZEN | 1,23 |
| A-627 | A-3006 ERREPIDEAREN ETA GIPUZKOAKO MUGAREN ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA | 0,83 | 80/60 | 7/9 | 2026-2028 | AZTERTZEN | 0,58 |
| AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEEN ERAIKUNTZA | | | | | | | |
| A-624 | AMURRIOKO EKIALDEKO SAIHESBIDEAREN ETA A-4602 ERREPIDEAREN ARTEKO ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEA | 3,2 | | 7/9 + ZIRK. MOTEL. BIDE | 2020-2022 | AZTERTZEN | 2,18 |
| AZPIPROGRAMA: ZEHARBIDEAK HOBETZEA | | | | | | | |
| A-132 | AZAZETAKO ZEHARBIDEA | 0,13 | | | 2026-2028 | AZTERTZEN | 0,28 |
| A-624 | ARTZINIEGAKO ZEHARBIDEA | 1,17 | 60 | 7/8 | 2020-2022 | AZTERTZEN | 1,19 |
| PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| A-124 | BASTIDAKO SAIHESBIDEA | 4,87 | 80 | 7/10 | 2026-2028 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 8,69 |
| A-124 | GUARDIAKO SAIHESBIDEA | 3,31 | 80 | 7/10 | 2026-2028 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 5,91 |

(*) A-124 errepideko egokitzapen-jarduketarekin batera konpondu beharreko jarduketa, azken egokitzapenetik – Trazaduraren hasiera aldakorrera (57,00 KP - 59,54 KP). Zenbateko hori dagoeneko sartuta dago jarduera honetan.

LURRALDE HISTORIKOA: BIZKAIA

| Errepidea | Jarduna | Luzera (km) | HELBURU TEKNIKOAK | | INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Proiektuaren abiadura (km/h) | Zeharkako sekzioa (m) | Programan duen lehentasuna | Definizio-maila | Aurrekontu eguneratua (milioi €) |
| PROGRAMA: OBRA NAGUSIA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK | | | | | | | |
| ESKUINALDERAKO SARBIDE OSAGARRIA | BOLUE - UNIBERTSITATEA | 3,47 | 80 | 2x7/10 | 2026-2028 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 50,00 |
| AP-8/ METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA | Ib FASEA. PEÑASCAL - VENTA ALTA | 3,7 | 100 | 2x7/10,5 | 2020-2022 | GAUZATZEN | 196,50 |
| A-8 | ERREKALDEKO SAIHESBIDEA ETA ERREKALDEKO ZUBIBIDEA ERAISTEA | 2,4 | 80 | 2x9,9/12,9 | 2020-2022 | HIRIGINTZA TRAMITAZIOA BILBOKO UDALAREN ESKU | 153,50 |
| LAMIAKOKO IBAI AZPIKO TARTEA | URIBE KOSTA - BALLONTI ARDATZA | 3,86 | 100 | 2x7/10,5 | 2023-2025 | INFORMAZIO AZTERKETA | 380,00 |
| BI-630 | BI-636 - MALABRIGO | 2,1 | 60 | 7/10 | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 20,00 |
| BI-631 (EKIALDEKO SAIHESBIDEA) | IBARSUSI - MIRAFLORES | 3,0 | 80 | 2x7/10,5 | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 126,70 |
| BI-631 | MEÑAKA - BERMEO | 6,6 | 80 | 7/10 | 2026-2028 | EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 114,73 |
| BI-633 | URBERUAGA - BERRIATUA | 7,5 | 80 | 7/10 | 2017-2019 | EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 155,45 |
| N-240 | BOROA - APARIO | 6,0 | 80 | 2x7/10,5 | 2026-2028 | EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 112,03 |
| N-240 | APARIO - IGORRE | 1,5 | 80 | 7/12 | 2026-2028 | EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 14,22 |
| N-636 | ELORRIO - KANPANZAR | 5,2 | 80 | 7/10 | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA TRAMITATU BEHAR DA | 96,50 |
| BI-635 | GOROZIKA - ARIATZA | 3,7 | 80 | 2x7/10,5 | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 139,92 |
| AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA | | | | | | | |
| BI-628 | KUETO - GALINDO | 0,83 | 80 | 2x7/10 | 2026-2028 | PLANGINTZA | 23,52 |
| AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA | | | | | | | |
| AP-8 | LARREA - ETXANO (3. erreia) | 1,5 | 100 | 2x10,5/14 | 2020-2022 | EGUNERATU EGUNA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 35,01 |
| AP-8/ METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA | Ic FASEA. ARENAKO LOTURA ETA ZUBIBIDEA | 3,0 | 100 | 2x10,5/14 | 2020-2022 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 60,12 |
| N-637 | KUKULARRA-ENEKURI (TXIRIKORDA EZABATZEA) | 1,0 | - | - | 2020-2022 | GAUZATZEN | 15,00 |
| N-637 | GURUTZETAKO LOTURA | 1,5 | | | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 5,00 |
| N-637 | RONTEGIKO AHALMENA HANDITZEA | | | | 2026-2028 | PLANGINTZA | 40,00 |
| AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA | | | | | | | |
| AP-8 | AP-8 SARBIDE BERRIA / EUBAKO LOTURA | | | | 2026-2028 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 8,70 |
| AP-8 | OKANGOKO LOTURA ERDIA | | | | 2020-2022 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 23,40 |
| N-634 | BOROA POLIGONOKO LOTURA | | | | 2020-2022 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 2,00 |
| N-240 | USANSOLO - BEDIA LOTURA | | | | 2017-2019 | GAUZATZEN | 3,67 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROGRAMA: EGOKITZAPENA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: TRAZADURA HOBETZEA ETA PLATAFORMA ZABALTZEA | | | | | | | |
| BI-630 | MALABRIGO - TRASLAVIÑA | 5,30 | 60 | 7/10 | 2020-2022 | ERAINKUNTZA PROIEKTUA | 10,00 |
| BI-630 | TRASLAVIÑA - TURTZIOZ | 4,70 | 60 | 7/10 | 2020-2022 | ERAINKUNTZA PROIEKTUA | 10,00 |
| BI-630 | LA ESCRITA - AMBASAGUAS | 3,57 | 60 | 7/10 | 2023-2025 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 15,00 |
| N-634 | EL CASAL - LAS CARRERAS | 1,38 | 60 | 7/10 | 2020-2022 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 2,49 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AZPIPROGRAMA: BIDEGURUTZEAK BERRANTOLATZEA ETA SARBIDEAK KONTROLATZEA | | | | | | | |
| N-634 | ZORNOTZA - IURRETA | 9,01 | | | 2017-2019 | PLANGINTZA / GAUZATZEN | 8,14 |
| N-634 | IURRETA - GEREDIAGA | | | | 2017-2019 | LEGEGINTZALDIKO PROGRAMAREN BARRUAN | 5,00 |
| N-634 | EL GALLO - IRUBIDE | | | | 2017-2019 | LEGEGINTZALDIKO PROGRAMAREN BARRUAN | 6,44 |
| N-634 | ETXEBARRIRAKO SARBIDEAK | 0,7 | - | - | 2026-2028 | EGUNERATU EGUNA ETA BIDE SEGURTASUNEKO IKUSKAPENA | 12,81 |
| AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEEN ERAIKUNTZA | | | | | | | |
| BI-633 | ZUBIBARRI - IRUZUBIETA | 2,91 | 80 | 10,5/14 | 2023-2025 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 9,38 |
| BI-636 | BALMASEDA | 0,3 | 80 | 10,5/14 | 2017-2019 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 1,97 |
| N-240 | ELEXONDO - BARAZAR | 3,34 | 60 | 10,5/14 | 2017-2019 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 10,77 |
| N-636 | ELORRIO - KANPANZAR (hirugarren erreia) | | | | 2020-2022 | HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA | 5,40 |
| PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| BI-635 | MUXIKAKO SAIHESBIDEA | 6,0 | 80 | 7/10 | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 66,25 |
| N-629 | LANESTOSAKO SAIHESBIDEA | 2,4 | | | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 12,00 |
| N-634 | LAS CARRERASKO SAIHESBIDEA | 2 | 60 | 7/10 | 2026-2028 | BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA | 15,26 |

LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

| Errepidea | Jarduna | Luzera (km) | HELBURU TEKNIKOAK | | INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Proiektuaren abiadura (km/h) | Zeharkako sekzioa (m) | Programan duen lehentasuna | Definizio-maila | Aurrekontu eguneratua (milioi €) |
| PROGRAMA: OBRA NAGUSIA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK | | | | | | | |
| AP-8 | TXENPERENEA ETA IRUNGO HEGOALDEKO INGURABIDEAREN ARTEKO LOTURA ERDIA | | | | 2017-2019 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 17,85 |
| N-636 (GI-632) | ANTZUOLA - BERGARA TARTEA | 5,00 | 80 | | 2017-2019 | ERAIKITZEN | 59,02 |
| AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA | | | | | | | |
| N-638 | AIREPORTURAKO SARBIDEA: AMUTE - AIREPORTUA | 0,95 | 60 | 2X7 + ESPALOIAK + BIDEGORRIA | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA BERRIKUSTEN | 3,59 |
| AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA | | | | | | | |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA ZARAUTZ ETA ORIO ARTEAN | 3,4 | 80 | 2x10,5/14 | 2026-2028 | PLANGINTZA | 17,06 |
| AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA BERRANTOLATZEA | | | | | | | |
| A-15 | N-I ERREPIDEAREN KONEXIOA HOBETZEA BAZKARDON (ANDOAIN) TOLOSARAKO NORANZKOAN | | | | 2020-2022 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 17,85 |
| GI-20 | SARBIDE BERRIAK (ILLUNBE, MARRUTXIPI, ZORROAGA…) | | | | 2026-2028 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 9,52 |
| N-I | LASARTEKO LOTURA BIRMOLDATZEA | | | | 2020-2022 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 6,55 |
| N-I | IRURAKO LOTURAKO LAUGARREN BIDE ADARRA | | | | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 4,66 |
| N-636 (GI-632) | N-636 ERREPIDEAREN LOTURA, EZKIO-ITSASON | | | | 2026-2028 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 12,00 |
| N-634 | GLORIETA, GI-631 ERREPIDEAREKIN, ARROAN | | | | 2017-2019 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 0,60 |
| N-634 | AGINAGA (USURBIL) ETA LASARTE-ORIA ARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA | | | | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 0,90 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROGRAMA: EGOKITZAPENA | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENA | | | | | | | |
| GI-631 | AZKOITIA - ZUMARRAGA TARTEA ZABALTZEA ETA HOBETZEA | 13 | 60 | 7/10 | 2017-2019 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 46,40 |
| N-I | ETZEGARATEN, GASTEIZERAKO NORANZKOAN, BIHURGUNEAK ZUZENTZEA | 2 | 80 | 2x7 / 10,5 | 2023-2025 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 56,84 |
| AZPIPROGRAMA: TRAZADURA HOBETZEA ETA PLATAFORMA ZABALTZEA | | | | | | | |
| AP-8 | AP-1ETIK BILBORAKO LOTUNEA HOBETZEA (MALTZAGAN) | | | | 2026-2028 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 11,35 |
| GI-638 | DEBA - MUTRIKU BIHURGUNEAK ZUZENTZEA ETA HOBETZEA | 3,9 | | | 2017-2019 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 12,49 |
| AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEAK | | | | | | | |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA ZARAUTZ - MEAGA | 1,3 | | 10,5 /14 | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 2,95 |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA OIKIA - MEAGA | 1,6 | | 10,5 /14 | 2020-2022 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 4,88 |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA OIKIA - BEDUA | 1,8 | | 10,5 /14 | 2020-2022 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 1,82 |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA ZUMAIA - ITZIAR | 2,5 | | 10,5 /14 | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 14,41 |
| AP-8 | HIRUGARREN ERREIA MENDARO - ITZIAR | 3 | | 10,5 /14 | 2023-2025 | AURRETIAZKO AZTERKETA | 37,68 |
| PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK | | | | | | | |
| GI-631 | ZESTOAKO SAIHESBIDEA | 2,4 | 60 | 7/10 | 2023-2025 | PLANGINTZA | 22,61 |
| N-634 | ZARAUZKO SAIHESBIDEA | 3,2 | 60 | 7/10 | 2026-2028 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 50,11 |
| N-634 | ORIOKO SAIHESBIDEA | 1,1 | 60 | 7/10 | 2026-2028 | ERAIKUNTZA PROIEKTUA | 41,65 |

## 9.2 Planaren balorazioa eta inbertsioen programazioa

Ondoren, EAErako zein hiru lurralde historikoetarako inbertsioen taulak eta grafikoak txertatu dira, programen arabera banakatuta.

| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN III. PLAN OROKORRAREN (2017-2028) INBERTSIOEN LABURPENA, PROGRAMEN ARABERA | |
|---|---|
| EAE | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 2.078,38 |
| Egokitzapena | 358,61 |
| Hiri-saihesbideak | 222,48 |
| EAE guztira | 2.659,47 |
| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 152,81 |
| Egokitzapena | 72,39 |
| Hiri-saihesbideak | 14,60 |
| Araba guztira | 239,80 |
| BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 1.775,97 |
| Egokitzapena | 97,40 |
| Hiri-saihesbideak | 93,51 |
| Bizkaia guztira | 1.966,88 |
| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 149,60 |
| Egokitzapena | 188,82 |
| Hiri-saihesbideak | 114,37 |
| Gipuzkoa guztira | 452,79 |












Ondoren, EAErako zein hiru lurralde historikoetarako Obra nagusia eta Egokitzapenak programetako inbertsioen banaketaren taulak eta grafikoak txertatu dira:

| OBRA NAGUSIKO AZPIPROGRAMEN ARABERAKO INBERTSIOEN BANAKETA | |
|---|---|
| EAE | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Azpiegitura berriak | 1.641,18 |
| Galtzada bikoiztea | 103,44 |
| Ahalmena handitzea | 194,46 |
| Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea | 126,21 |
| Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea | 13,09 |
| EAE guztira | 2.078,38 |
| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Azpiegitura berriak | 4,76 |
| Galtzada bikoiztea | 76,32 |
| Ahalmena handitzea | 22,26 |
| Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea | 36,37 |
| Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea | 13,09 |
| Araba guztira | 152,81 |
| BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Azpiegitura berriak | 1.559,55 |
| Galtzada bikoiztea | 23,52 |
| Ahalmena handitzea | 155,13 |
| Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea | 37,77 |
| Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea | 0,00 |
| Bizkaia guztira | 1.775,97 |
| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Azpiegitura berriak | 76,87 |
| Galtzada bikoiztea | 3,59 |
| Ahalmena handitzea | 17,06 |
| Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea | 52,07 |
| Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea | 0,00 |
| Gipuzkoa guztira | 149,60 |


EAEko Obra nagusiko azpiprogramen araberako inbertsioen banaketa
% 6
% 1
% 9
% 5
% 79
Azpiegitura berriak
Galtzada bikoiztea
Ahalmena handitzea
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea


Bizkaiko Obra nagusiko azpiprogramen araberako inbertsioen banaketa
% 2
% 9
% 1
% 88
Azpiegitura berriak
Galtzada bikoiztea
Ahalmena handitzea
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea


Arabako Obra nagusiko azpiprogramen araberako inbertsioen banaketa
% 8
% 3
% 24
% 50
% 15
Azpiegitura berriak
Galtzada bikoiztea
Ahalmena handitzea
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea


Gipuzkoako Obra nagusiko azpiprogramen araberako inbertsioen banaketa
% 35
% 51
% 12
% 2
Azpiegitura berriak
Galtzada bikoiztea
Ahalmena handitzea
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea

| EGOKITZAPENEKO AZPIPROGRAMEN ARABERAKO INBERTSIOEN BANAKETA | |
|---|---|
| EAE | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea | 61,33 |
| Egokitzapena | 171,97 |
| Zirkulazio motelerako bideak | 91,45 |
| Bidegurutzeak berrantolatzea | 32,39 |
| Zeharbideak hobetzea | 1,48 |
| EAE guztira | 358,61 |
| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea | 0,00 |
| Egokitzapena | 68,73 |
| Zirkulazio motelerako bideak | 2,18 |
| Bidegurutzeak berrantolatzea | 0,00 |
| Zeharbideak hobetzea | 1,48 |
| Araba guztira | 72,38 |
| BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea | 37,49 |
| Egokitzapena | 0,00 |
| Zirkulazio motelerako bideak | 27,52 |
| Bidegurutzeak berrantolatzea | 32,39 |
| Zeharbideak hobetzea | 0,00 |
| Bizkaia guztira | 97,40 |
| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea | 23,84 |
| Egokitzapena | 103,24 |
| Zirkulazio motelerako bideak | 61,74 |
| Bidegurutzeak berrantolatzea | 0,00 |
| Zeharbideak hobetzea | 0,00 |
| Gipuzkoa guztira | 188,82 |












Ondoren, Lurralde Historiko bakoitzean eta definitutako jardun-programetako bakoitzean Planaren indarraldian egin beharreko inbertsioak zehazten dira:

| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN III. PLAN OROKORRAREN (2017-2028) INBERTSIOAK, PROGRAMEN ARABERAKO LEHENTASUNEN ARABERA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | LEHENTASUNA | | | | |
| EAE | 2017-2019 | 2020-2022 | 2023-2025 | 2026-2028 | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 270,81 | 578,88 | 444,67 | 784,02 | 2.078,38 |
| Egokitzapena | 100,49 | 88,00 | 162,40 | 27,72 | 358,61 |
| Hiri-saihesbideak | 0,00 | 0,00 | 22,61 | 199,87 | 222,48 |
| EAE guztira | 371,30 | 666,88 | 609,68 | 1.011,,61 | 2.659,47 |
| ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA | 2017-2019 | 2020-2022 | 2023-2025 | 2026-2028 | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 34,23 | 40,36 | 59,10 | 19,12 | 152,81 |
| Egokitzapena | 9,28 | 53,42 | 6,13 | 3,56 | 72,38 |
| Hiri-saihesbideak | 0 | 0 | 0,00 | 14,60 | 14,60 |
| Araba guztira | 43,51 | 93,78 | 65,23 | 37,28 | 239,79 |
| BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA | 2017-2019 | 2020-2022 | 2023-2025 | 2026-2028 | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 159,12 | 510,53 | 380,00 | 726,32 | 1.775,97 |
| Egokitzapena | 32,32 | 27,89 | 24,38 | 12,81 | 97,40 |
| Hiri-saihesbideak | 0 | 0 | 0 | 93,51 | 93,51 |
| Bizkaia guztira | 191,44 | 538,42 | 404,38 | 832,64 | 1.966,88 |
| GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA | 2017-2019 | 2020-2022 | 2023-2025 | 2026-2028 | AURREKONTUA (MILIOI €) |
| Obra nagusia | 77,47 | 27,99 | 5,56 | 38,58 | 149,60 |
| Egokitzapena | 58,89 | 6,70 | 111,89 | 11,35 | 188,82 |
| Hiri-saihesbideak | 0 | 0 | 22,61 | 91,76 | 114,37 |
| Gipuzkoa guztira | 136,35 | 34,69 | 140,06 | 141,69 | 452,79 |


Lehentasunen araberako inbertsioak, EAE
Aurrekontua (milioi euro)
800,00
700,00
600,00
500,00
400,00
300,00
200,00
100,00
0,00
Obra nagusia
Egokitzapena
Hiri-saihesbideak
Programa
2017-2019
2020-2022
2023-2025
2026-2028


Lehentasunen araberako inbertsioak, Bizkaia
Aurrekontua (milioi euro)
800,00
700,00
600,00
500,00
400,00
300,00
200,00
100,00
0,00
Obra nagusia
Egokitzapena
Hiri-saihesbideak
Programa
2017-2019
2020-2022
2023-2025
2026-2028


Lehentasunen araberako inbertsioak, Araba
Aurrekontua (milioi euro)
60,00
50,00
40,00
30,00
20,00
10,00
0,00
Obra nagusia
Egokitzapena
Hiri-saihesbideak
Programa
2017-2019
2020-2022
2023-2025
2026-2028


Lehentasunen araberako inbertsioak, Gipuzkoa
Aurrekontua (milioi euro)
120,00
100,00
80,00
60,00
40,00
20,00
0,00
Obra nagusia
Egokitzapena
Hiri-saihesbideak
Programa
2017-2019
2020-2022
2023-2025
2026-2028


Lehentasunen araberako inbertsioak, Lurralde Historikoak
Aurrekontua (milioi euro)
1200,00
1000,00
800,00
600,00
400,00
200,00
0,00
EAE
ARABAKO L.H.
BIZKAIKO L.H.
GIPUZKOAKO L.H.
2017-2019
2020-2022
2023-2025
2026-2028

## 9.3 Errepideen kostu gehigarrien balorazioa [2]

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren xedea da Planaren xede-sarearen, gutxienez, inguruko aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak zehaztea eta araudi teknikoa ezartzea. Helburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareen arteko koordinazio egokia ziurtatzea. Horrenbestez, xedea ez da errepideen kudeaketarekin eta ustiapenarekin lotzen diren eragiketak zehaztea.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar zerbitzuan jartzen direnetik, errepideetan etengabe egin behar direla mantentze-lanak, ibilgailuen zirkulazioa erosoa eta segurua izan dadin eta azpiegiturak ahalik eta gehien iraun dezan. Bide-markak aldian behin marraztu beharko dira; seinale bertikalak ordeztu beharko dira, ikusgaitasuna galdu dutenean; ertzetako belarra moztu beharko da; segurtasun-oztopoak konpondu beharko dira; drainatzeak garbitu beharko dira; eta, azken finean, ohiko kontserbazio-lanak egin beharko dira. Askotan kontserbazio integraleko kontratuen bidez gauzatzen diren lanak dira.

Bestalde, azpiegitura horien bizitza baliagarrian ezinbestekoak diren eta ohiko kontserbazioarekin zerikusirik ez duten jardunak egin beharko dira, errepideen kontserbazio-egoeran, segurtasunean eta iraunkortasunean eragina duten aldetik. Horrenbestez, eta zeregin horietan arreta jartzeko, Planaren proposamenak eta horien balorazio ekonomikoa zehazten dituen 9. kapitulu hau osatu nahi da Foru Aldundien aurrekontuetan aintzat hartu behar diren ohiko kontserbazioaz kanpoko aldian behingo eta munta handiko zeregin horien kostuen aurreikuspenarekin.

Errepidearen azpiegitura osatzen duten elementu guztien artean, arreta berezia merezi dute bide-zoruek, errepidearen funtsa eta oinarria baitira eta horien kontserbazio-egoerak zuzenean eragina baitu zerbitzuaren kalitatean eta azpiegituraren iraunkortasunean. Horrez gain, mantendu beharreko elementu guztien artean luzeena da, nabarmen gainera, eta oso klima-efektu erasokorren eraginpean dago eta zuzenean jasaten ditu ibilgailuen joan-etorriak.

Zerbitzuan jartzen denetik bertatik degradatzen hasten da errepidea, nahiz eta lehen urteetan oso prozesu mantsoa izan (lehen 2-4 urteetan, betiere ibilgailu astunen trafikoaren eta proiektuaren eta eraikuntzaren kalitatearen arabera).

Denboraren poderioz, aurreko narriaduren maiztasuna areagotzen da eta gidatzeko erosotasunean eta segurtasunean eragina duten beste narriadura batzuk sortzen hasten dira, hala nola irristakor bihurtzen diren zonak, luzetarako edo zeharkako erregulartasuna narriatzen den tarteak edo fabrika-obren inguruko asentuak. Errodadurak ezinbestean zahartzen dira, eta degradazio-prozesua gehitzen da; ondorioz, zerbitzuaren mailak behera egiten du. Narriadurak maiz agertzeak bide-zoruan etengabe jardun behar izatea ekartzen du, eta horrek erabiltzaileentzako eragozpenak eta auto-pilaketak eragiten ditu eta istripuen arriskua areagotzen du. Egoera kritiko horretara iristen denean, errodaduraren azalera berritu behar da, hasierako egoerara itzultzeko eta prozesua berriro hasteko.

Aurreko gainazaleko jardunek, ordea, ez dute bide-zoruaren euste-ahalmena lehengoratzen, eta ahalmen hori ere narriatu egiten da. Errepideetako zoruen proiektuan 20 urteko iraunkortasuna aurreikusten da. Bide-zoruek, ondo diseinatuta egonagatik ere, etengabeko higadura jasaten dute —kargak behin eta berriro jasatearen ondorioz— eta horrek euste-ahalmenean eragina du; hartara, denborarekin, egitura-konponketak egin behar izaten dira —hainbat geruza hartzen duen lodieran— bide-zoruari hasierako euste-ahalmena itzultzeko.

Jarduteko estrategiek, eta, batik bat, narriadurak agertu eta berehala erantzutera zuzentzen diren estrategiek kudeaketa-sistema egokia eskatzen dute, etorkizuneko kostuak minimizatzeko eta erabiltzaileentzako kostuak eta istripuak murrizteko. Kudeaketa-sistema hori errepidearen egoerari buruzko behar besteko informazio eguneratuan oinarritzen da, baita helburuei erantzungo dieten kalitate-estandarretan ere. Era berean, ondo definitutako jardun-prozedurak eduki beharko dira eta lehentasunak ezartzeko sistema argia eduki beharko da. Sistemak, oro har, epe ertainerako eta luzerako beharrezkoak diren aurrekontuak ezartzeko aukera eman beharko du.

### 9.3.1 Planaren xede-sarea

Analisi honetan aztergai dugun xede-sarea korridoreetan egituratuta dago. Ondoren txertatzen den taulan laburbiltzen da egitura hori, eta zehazten da korridore horien luzera osoa zein korridore bakoitzeko errepideen luzera. Hemen garatutako analisiaz kanpo geratu dira AP-1 eta AP-68 autobideen luzerak, estatuko emakiden mende baitaude. Analisiak, beraz, proposatutako Planaren xede-sarea du aztergai, eta horren kostuen aurreikuspena egiten du.

| Korridorearen kodea eta izena | Osorik edo zati batean barnean hartzen diren errepideak | | Luzera osoa (km) |
|---|---|---|---|
| A. IPARRALDE - HEGOALDE KORRIDOREA ETA NAFARROA - GIPUZKOA KONEXIOA | AP-1<br>A-1<br>N-I<br>G-11<br>GI-636<br>A-15 | N-638<br>N-121-A<br>VG-11<br>VG-21<br>GI-41<br>GI-631 | 267 |
| B. KANTAURIKO ERLAITZEKO KORRIDOREA | AP-8<br>N-644<br>N-639<br>BI-637<br>BI-633<br>BI-635<br>BI-20<br>BI-631<br>BI-21 | N-633<br>BI-10<br>A-8<br>GI-20<br>GI-40<br>N-634<br>BI-628<br>BI-30 | 425 |
| C. EBROKO KORRIDOREA | AP-68<br>A-124 | N-124 | 42 |
| D. BIZKAIA - BURGOS KONEXIOA | BI-636 | | 30 |

[2] *Bide-zoruen kostuen, ohiko kontserbaziokoen gehigarrien, aurreikuspena* (2017ko azaroa) azterketaren ondorioak barnean hartzen dira. Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruen Araua berrikusteko lanen esparruan egindako azterketa da.

| Korridorearen kodea eta izena | Osorik edo zati batean barnean hartzen diren errepideak | | Luzera osoa (km) |
|---|---|---|---|
| E. BIZKAIA - KANTABRIA KONEXIOA | BI-630 | | 23 |
| F. BURGOS - SANTANDER KONEXIOA | N-629 | | 4 |
| G. ARABA - NAFARROA KONEXIOA | A-132 | | 38 |
| H. ARABA - BIZKAIA KONEXIOA | VG-31 | A-625 | 137 |
| | N-622 | A-623 | |
| | VG-41 | BI-623 | |
| | N-240 | N-624 | |
| | BI-625 | | |
| I. ARABA - GIPUZKOA KONEXIOA | GI-627 | A-627 | 39 |
| J. ARABA - KANTABRIA KONEXIOA | BI-624 | A-624 | 42 |
| K. GIPUZKOA - BIZKAIA KONEXIOA | AP-636 | GI-638 | 56 |
| | N-636 | BI-638 | |
| Luzera osoa | | | 1103 |

Analisia egin aurretik, aurreko informazioa bereizi da eta korridore bakoitzeko errepideetarako identifikatu dira errepide horietatik zirkulatzen duen trafiko astunaren intentsitatea eta oinarrizko tipologia.

Bi parametro horiek ezaugarritzen dute, oro har, aztertutako ibilbideetako bakoitza, eta, hartara, ezarritako kategoria bakoitzerako jardunak zehaztu ahal izango dira —kategoria horietako bakoitzak jarduteko behar bereizgarriak ditu—.

Lehenik, errepide konbentzionalak (galtzada bakarreko errepideak) eta galtzada bikoitzeko errepideak bereizten dira, eta azken horien artean autobideak eta autobiak. Bestalde, trafiko astunaren intentsitateari buruzko aldagaia sartu da, galtzada bakarreko errepideak azpibanatzeko.

Azkenik, honako kategoria hauek ezarri dira analisiari munta gehituko dion multzo maneiagarrien bolumena lortzeko:

- Autobideak
- Autobiak, galtzada bikoitzeko bestelako errepideak
- Errepide konbentzionala, ibilgailu astunen EBBI > 800 ibilgailu astun / egun (T1 edo handiagoa)
- Errepide konbentzionala, ibilgailu astunen EBBI > 200 baina < 800 ibilgailu astun / egun (T2)
- Errepide konbentzionala, ibilgailu astunen EBBI < 200 ibilgailu astun / egun (T3 eta T4)

Hurrengo taulan jaso dira lortutako emaitzak eta errepide bakoitzerako identifikatutako galtzadaren luzera osoak, betiere aurreko bi irizpideen arabera, korridoreen arabera eta lurraldearen arabera multzokatuta. Planaren xede-sarea. Galtzadaren luzera osoak (km), Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| **Araba** | 28 | 210 | 18 | 30 | 115 | 401 |
| **Bizkaia** | 152 | 202 | 36 | 121 | 78 | 589 |
| **Gipuzkoa** | 312 | 158 | 17 | 133 | 24 | 644 |
| Guztira | **492** | **570** | **71** | **284** | **217** | **1634** |

## 9.3.2 Xede-sarearen gaineko jardunak

### 9.3.2.1 Gurpilaren eta zoladuraren arteko itsaspena hobetzeko jardunak

Errodadurak leundu egiten dira trafikoaren joan-etorriaren ondorioz, eta batez ere gainazalean metatzen diren eta efektu urragarria duten elementu solidoen laguntzarekin. Hori, askotan, bat dator ehunduraren galerarekin. Irristatzeekiko erresistentzia- edo ehundura-atalase jakin baten azpitik badaude, zoladurak irristakor bihurtzen dira euri-ura dagoenean, eta errazago sor daitezke istripuak.

Egin beharreko jardunak zuzenean erabakitzeko lagungarria izango zaigun daturik ez dugunez gero, urte bakoitzean xede-sareko bideen zer ehunekotan jardun beharko den zenbatetsi da.

Xede-sarea. Pneumatikoaren eta zoladuraren arteko itsaspena hobetzeko galtzadaren luzeraren zer proportziotan jardun beharko den

| Errepide mota | | Urtean zer ehunekotan jardun beharko den |
|---|---|---|
| Autobideak | | % 4 |
| Autobideak, Autobiak, Galtzada bikoitzeko errepideak | | % 4 |
| Errepide konbentzionalak | T1 edo handiagoa | % 0,75 |
| | T2 | % 0,4 |
| | T3-T4 | % 0,1 |

Jardunaren batez besteko prezioa zenbatesteko garaian, hotzeko mikroaglomeratua hartu da kontuan (3,75 €/m$^2$). Era berean, aintzat hartu da erreia moztearen kostuak eta beste kostu batzuek % 20 gehitzen dutela lanak gauzatzeko prezioa; beraz, jardunaren batez besteko prezio osoa 4,8 €/m$^2$-koa izango da.

Bidezko kalkuluak egin ostean, magnitude hauek lortu dira:

Xede-sarea. Urtean jardunaren mende dauden luzerak (m), Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| **Araba** | 1120 | 8400 | 135 | 120 | 115 | 9890 |
| **Bizkaia** | 6080 | 8080 | 270 | 484 | 78 | 14992 |
| **Gipuzkoa** | 12480 | 6320 | 128 | 532 | 24 | 19484 |
| **Guztira** | **19680** | **22800** | **533** | **1136** | **217** | **44366** |

Aintzat hartuko da jardunak galtzadaren osotasuna hartuko duela, 7 metroko zabalera beti. Jardunaren urteko azalerak lor daitezke horrela, eta, aurrez tratamenduetarako zehaztutako prezioak aplikatuta, lortzen dira hurrengo taulan zehazten diren urteko inbertsioak.

Xede-sarea. Gurpilaren eta zoladuraren arteko itsaspena hobetzeko inbertsio-beharrak, Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Araba | 37.632 € | 282.240 € | 4.536 € | 4.032 € | 3.864 € | 332.304 € |
| Bizkaia | 204.288 € | 271.488 € | 9.072 € | 16.262 € | 2.621 € | 503.731 € |
| Gipuzkoa | 419.328 € | 212.352 € | 4.284 € | 17.875 € | 806 € | 654.646 € |
| Guztira | 661.248 € | 766.080 € | 17.892 € | 38.170 € | 7.291 € | 1.490.681 € |

9.3.2.2 Zahartzearen ondorioz errodadurak berritzeko jardunak

Errodadura-geruzak zahartu egiten dira trafikoaren eta eragile atmosferikoen ondorioz. Eguzki-erradiazioak eta udako tenperaturek eraginda, betunak osagairik arinenak galtzen ditu eta zurrunago eta hauskorrago bihurtzen da; hori dela eta, trafikoaren joan-etorriek edo tenperatura txikien ondoriozko uzkurdura-indarrek errodadurak pitzatzen dituzte eta partikulak galarazten diete errodadurei. Bide-zorua ondo dimentsionatuta dagoen arren, eta -zoruak trafikoaren kargak, oro har, eusten dituen arren gertatuko da efektu hori.

Prozesu hori bizi-bizi gertatzen denean, errodadurak ordeztu beharko dira; hala egin ezean, etengabe konpondu beharko dira errepideko zuloak, batez ere neguan. Horrez gain, gainazaleko pitzadurak beheko geruzetara heda daitezke, eta, geruza horiek kaltetuz gero, garaiz ordeztea baino garestiagoa izango da birgaitze-kostua. Oro har, ordezkatze horiek errodadura-geruzetan soilik dute eragina, baina batzuetan tarteko geruzak ere ordeztu behar izaten dira.

Taulan adierazten den errodadura-geruzaren iraupena zenbatets daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan:

Zenbatetsitako iraupena (urteak), Euskal Autonomia Erkidegoan trafiko astunen zirkulazio handia duten errepideetarako (autobideetarako eta errepide nagusietarako) errodadura-geruzaren arabera

| NAHASKETA | BATEZ BESTEKO IRAUPENA |
|---|---|
| AC | 18 |
| BBTM | 15 |
| PA | 12 |

Analisi egokia egingo bada, sareko errodadurak zer adin duen jakin beharko da, eta dagokion kalkulua egin beharko da. Edonola ere, informazio hori ez dugunez gero, galtzada bikoitzeko errepideetan nahaste etenak (BBTM) daudela suposatu da eta errepide konbentzionaletan nahaste konbentzionala (AC) dagoela suposatu da.

Hartara, xede-sarean, errodadurak birjartzeko tasa % 6,6koa litzateke autobideen kasuan eta galtzada bikoitzeko beste errepide batzuen kasuan; izatez, nahaste etenen (BBTM) iraunkortasuna 15 urtekoa dela suposatu denez gero, sareko errodaduren 1/15 (% 6,6) ordeztu beharko da urtero. Errepide konbentzionalen kasuan, berriz, berritze-tasa % 5,56koa izango da.

Jardun bakoitzerako aintzat hartu den batez besteko prezioa, galtzada bikoitzeko errepide baterako, BBTM bat fresatzearena eta birjartzearena da, eta errepide konbentzionaletarako AC bat fresatzearena eta birjartzearena. Honako kostu hauek hartuko dira aintzat:

- Trafiko handiko errepideak:
  - Fresatzea 3 cm: 2,5 €/$m^2$
  - Birjartzea, BBTM A, 3 cm-tan: 5 €/$m^2$
- Trafiko ertaineko eta txikiko errepideak:
  - Fresatzea 5 cm: 4,5 €/$m^2$
  - Birjartzea AC, 5 cm-tan: 7 €/$m^2$

Kasu bakoitzean, kostu gehigarriko % 20 barnean hartu behar dela-eta, jardunen batez besteko prezioak 9 €/$m^2$-koak izango dira galtzada bikoitzeko errepideetan eta 13,8 €/$m^2$-koak izango dira galtzada bakarreko errepideetan.

Aurreko guztiarekin, honako jardun-luzera hauek lortzen dira:

Xede-sarea. Urtean jardunaren mende dauden luzerak (m), Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Araba | 1867 | 14000 | 1125 | 1667 | 6389 | 25047 |
| Bizkaia | 10133 | 13467 | 2250 | 6722 | 4333 | 36906 |
| Gipuzkoa | 20800 | 10533 | 1063 | 7389 | 1333 | 41118 |
| Guztira | **32800** | **38000** | **4438** | **15778** | **12056** | **103071** |

Errodadura-geruza osorik berritzeari ekingo zaionez gero, jardun horretan plataformaren zabalera osoan (galtzadetan eta bazterbideetan) jarduten dela hartzen da aintzat. Kalkuluetan erabilitako zabalerak 10,5 metrokoak dira kasu guztietan, autobideetarako izan, galtzada bikoitzeko errepideetarako izan edo errepide konbentzionaletarako izan.

Aurrez zehaztutako kostuak aplikatuta, hau lortzen da:

Xede-sarea. Zahartutako errodadurak berritzeko inbertsio-beharrak, Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Araba | 176.400 € | 1.323.000 € | 163.013 € | 241.500 € | 925.750 € | 2.829.663 € |
| Bizkaia | 957.600 € | 1.272.600 € | 326.025 € | 974.050 € | 627.900 € | 4.158.175 € |
| Gipuzkoa | 1.965.600 € | 995.400 € | 153.956 € | 1.070.650 € | 193.200 € | 4.378.806 € |
| Guztira | **3.099.600 €** | **3.591.000 €** | **642.994 €** | **2.286.200 €** | **1.746.850 €** | **11.366.644 €** |

9.3.2.3 Egitura birgaitzearekin lotzen diren jardunak

Bide-zoruak 20 urterako proiektatzen dira, baina, oro har, eta ondo diseinatuta badaude, gehiago irauten dute. Ez da bitxia egitura birgaitzeko jardun handirik gabe 40 urteko zerbitzua izan duten azpiegiturak egotea, nahiz eta gehienetan jardunak lehenago egin behar izaten diren, 15 eta 25 urte artean. Bestalde, egituraren gaineko jardun horiek ez dira sare osoan egiten, errodadurak berritzen direnean ez bezala. Lur-eremuarengatik, esfortzuengatik, proiektuarengatik edo jardunarengatik ahulenak diren zonetan egiten dira.

Kasu horretan, ez da erraza zentzuzko zenbatespena egitea, baina Lurralde Historikoetakoren batean aldian behin egiten diren deflexioen eta pitzaduren kanpainen emaitzak har daitezke adibide.

Izatez, bide-zoruak 20 urterako proiektatzen badira ere, zerbitzu-bizitza handiagoa dute, baldin eta aldian behin errodadura-geruzak behar bezala berritzen badira eta kontserbazio-lanak zuzen egiten badira (bide-zuloak estaltzea, pitzadurak zigilatzea eta abar). Lur-eremuarengatik, esfortzuengatik, proiektuarengatik edo jardunarengatik patologiaren bat edo ahuleziaren bat duten zonen gaineko jardun goiztiarrak ere barnean hartzen dituzte jardun horiek.

Kasu horretan, aintzat har daiteke sare osoan egitura birgaitzeko jardunak egin behar izan direla, batez beste, zerbitzuko 35 urteko horizontean, bai autobideetarako, bai autobietarako, bai errei bikoitzeko errepideetarako. Galtzada bakarreko errepide konbentzionaletan, eta esfortzu txikiagoak dituztela kontuan izanik, egitura birgaitzeko behar txikiak onartu dira. Urtean honako jardun-tasa hauek lortzen dira:

- Galtzada bikoitzeko errepideak (autobiak, autobideak eta beste batzuk): % 3
- Errepide konbentzionalak, T1 eta handiagoa: % 1,5
- Errepide konbentzionalak, T2: % 1
- Errepide konbentzionalak, T3 eta T4: % 0,2

Bestalde, galtzada bikoitzeko errepideetan, birgaitzeko jardunak kanpoaldeko erreian soilik egingo dira, errei horrek jasaten baitu ibilgailu astunen ia intentsitate osoa.

Hauek dira aintzat hartutako jardun motak eta horien kostuak:

- Galtzada bikoitzeko errepideetan:
  - Nahaste bituminosoko 13 cm fresatzea eta ordeztea, 26 €/m$^2$-ko* (19 €/m$^2$) kostuarekin.
- Trafiko astuneko T2 kategoriako edo handiagoko errepide konbentzionaletan:
  - Nahaste bituminosoko 8 cm fresatzea eta birjartzea, 17 €/m$^2$-ko* (12 €/m$^2$) kostuarekin.
- Trafiko astuneko T3 eta T4 kategorietako errepide konbentzionaletan:
  - Nahaste bituminosoko 6 cm fresatzea eta birjartzea, 13 €/m$^2$-ko* (9 €/m$^2$) kostuarekin.

*(*) Aintzat hartzen da jardunen % 50ean ez dela aurretiazko fresatzerik egingo, zuzenean aplikatuko dela errefortzua; zehaztutako kostuak izango dira emaitza.*

Jardunarekin lotzen diren beste kostu batzuk barnean hartuz gero, eta aurreko balioei % 20 gehituz gero, azken prezio hauek lortzen dira:

- Galtzada bikoitzeko errepideak (fresatzea eta birjartzea): 31,2 €/m$^2$
- Galtzada bikoitzeko errepideak (errefortzua): 22,8 €/m$^2$

- Errepide konbentzionala, T2 edo handiagoa (fresatzea eta birjartzea): 20,4 €/m$^2$
- Errepide konbentzionala, T2 edo handiagoa (errefortzua): 14,4 €/m$^2$
- Errepide konbentzionala, T3 eta T4 (fresatzea eta birjartzea): 15,6 €/m$^2$
- Errepide konbentzionala, T3 eta T4 (errefortzua): 10,8 €/m$^2$

Irizpide horiek aplikatuta, urtean honako galtzada luzera hauetan jardun behar dela ondorioztatzen da:

Xede-sarea. Urtean jardunaren mende dauden luzerak (m), Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Araba | 840 | 6300 | 270 | 300 | 230 | 7940 |
| Bizkaia | 4560 | 6060 | 540 | 1210 | 156 | 12526 |
| Gipuzkoa | 9360 | 4740 | 255 | 1330 | 48 | 15733 |
| Guztira | **14760** | **17100** | **1065** | **2840** | **434** | **36199** |

Egitura birgaitzeko jardun horietarako galtzadaren zabalera osoa hartzen da aintzat errepide konbentzionalen kasuan, hau da, 7 metro; aitzitik, galtzada bikoitzeko errepideen kasuan, eskuinaldeko erreia soilik hartzen da aintzat, hau da, 3,5 metro.

Kasuan kasuan aurrez zehaztutako kostuak aplikatu ostean, hau ondorioztatzen da:

Xede-sarea. Egitura birgaitzeko inbertsio beharra, Lurralde Historikoen arabera

| Lurraldea | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Araba | 79.380 € | 595.350 € | 32.886 € | 36.540 € | 21.252 € | 765.408 € |
| Bizkaia | 430.920 € | 572.670 € | 65.772 € | 147.378 € | 14.414 € | 1.231.154 € |
| Gipuzkoa | 884.520 € | 447.930 € | 31.059 € | 161.994 € | 4.435 € | 1.529.938 € |
| Guztira | **1.394.820 €** | **1.615.950 €** | **129.717 €** | **345.912 €** | **40.102 €** | **3.526.501 €** |

### 9.3.3 Kostu osoak

Ondoren, egindako analisiaren laburpena aurkeztuko da. Lehenik, analisirako aintzat hartutako abiapuntuko parametroak aurkeztuko dira, eta, gero, horien ondoriozko urteko kostu osoak zehaztuko dira.

Xede-sarea. Analisirako abiapuntuko parametroak eta urteko kostu osoa

| Jardun mota | Kontzeptua | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Urteko kostu osoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | |
| Gurpila / zoladura itsaspena hobetzea | Urtean jarduteko galtzadaren luzeraren %a | % 4,0 | % 4,0 | % 0,75 | % 0,40 | % 0,10 | 1.490.681 € |
| | Aintzat hartutako jardun-zabalera | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | |
| | m²-ko kostua | 4,8 | 4,8 | 4,8 | 4,8 | 4,8 | |
| Errodadurak berritzea | Urtero berritu beharreko galtzadaren luzeraren %a | % 6,67 | % 6,67 | % 6,25 | % 5,56 | % 5,56 | 11.366.644 € |
| | Jardunaren zabalera | 10,5 | 10.5 | 10.5 | 10.5 | 10.5 | |
| | m²-ko kostua | 9 | 9 | 13,8 | 13,8 | 13,8 | |
| Egitura birgaitzea | Urtero birgaitu beharreko galtzadaren luzeraren %a | % 3 | % 3 | % 1,5 | % 1 | % 0,2 | 3.526.501 € |
| | Jardunaren zabalera | 3,5 | 3,5 | 7 | 7 | 7 | |
| | m²-ko kostua | 31,2 / 22,8 | 31,2 / 22,8 | 20,4 / 14,4 | 20,4 / 14,4 | 15,6 / 10,8 | |
| Xede-sarea. Urteko inbertsio osoa | | | | | | | 16.383.825 € |

Errepideen Plan Orokorraren xede-sarean honako urteko inbertsio-behar hauek ondorioztatu dira jardun motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.

Urteko inbertsio-beharrak, jardun motaren eta Lurralde Historikoaren arabera (milioi euro)

| Lurraldea | Gurpila / zoladura itsaspena hobetzea | Errodadurak berritzea | Egitura birgaitzea | Jardun guztiak |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | 0,33 | 2,83 | 0,77 | **3,93** |
| **Bizkaia** | 0,50 | 4,16 | 1,23 | **5,89** |
| **Gipuzkoa** | 0,65 | 4,38 | 1,53 | **6,56** |
| **Guztira** | **1,49** | **11,37** | **3,53** | **16,38** |

Planaren xede-sarean, eta Lurralde Historikoen arabera, honako inbertsio-behar hauek ondorioztatu dira, jardun mota guztiak nahastuta:

| Jardun mota | Autobideak | Autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak | Errepide konbentzionala | | | Guztira | Urteko inbertsioa / galtzadako km (LHen arabera) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T1 edo handiagoa | T2 | T3-T4 | | |
| **Araba** | 293.412 € | 2.200.590 € | 200.435 € | 282.072 € | 950.866 € | 3.927.375 € | 9794€/km |
| **Bizkaia** | 1.592.808 € | 2.116.758 € | 400.869 € | 1.137.690 € | 644.935 € | 5.893.061 € | 10005€/km |
| **Gipuzkoa** | 3.269.448 € | 1.655.682 € | 189.299 € | 1.250.519 € | 198.442 € | 6.563.390 € | 10192€/km |
| **Guztira** | **5.155.668 €** | **5.973.030 €** | **790.603 €** | **2.670.282 €** | **1.794.243 €** | **16.383.825 €** | 10027€/km |
| Urteko inbertsioa / galtzadako km (bide motaren arabera) | 10479€/km | 10479€/km | 11135€/km | 9402€/km | 8268€/km | 10027€/km | |




